

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2014-2019

2018ko ebaluazioa

10/06/2019



AURKIBIDEA

SARRERA

LABURPEN EXEKUTIBOA

ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMAN-TAULA

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Jarraipenerako adierazleak



SARRERA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren helburu nagusia pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren segurtasuna bermatzea da.

Helburu hori lortu ahal izateko, herritarrek eskubide eta askatasunak bete-betean erabil ditzaten, eta bakean, elkarbizitzan, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizi daitezen, plan honek horretarako beharrezkoak diren baldintzak sustatu eta dauden oztopoak ezabatu behar ditu; eta, ahal den heinean, nahita zein nahi gabe eragindako arriskuak eta arriskubideak murriztu behar ditu, baldin eta horiek herritarren eskubideak eta askatasunak, eta segurtasuna, eta herritarren ondasunen zein ondasun kolektiboen eta abarren segurtasuna oztopatzen badute.

Jarraitu nahi den segurtasun-estrategiak Europar Batasunak emandakoaren printzipio eta helburuen isla izan nahi du. Horretan, askatasuneko, segurtasuneko eta justiziako esparru bat sortzeko konpromiso sendoa azaltzen da, aldi berean, etengabe aldatzen dabilen mundu honetan aurre egin behar izaten diegun arrisku eta mehatxuei aurre egin ahal izateko. Konpromiso horren ondorioz, besteak beste, askatasunak eta eskubideak babestu behar ditugu, segurtasun ezaren kausei aurre egin behar diegu eta prebentzioari eta aurre hartzeari lehenasuna eman behar diegu. Horretarako, segurtasun publikoarekin lotutako eginkizunak burutzen dituzten gizarteko sektore guztiak inplikatu behar ditugu.

Hori dela eta, Plana Sailaren gaidikoa da, Gobernuaren plan bat da, Eusko Jaurlaritzaren arlo guztiei ez ezik, gainerako erakundeei ere eragiten baitie. Horrela, segurtasun integraleko sistema bat ezarri nahi da, hau da, sektore askotara iristen den sistema oso eta zabal bat. Plan horrek barne hartuko ditu sektore hauek guztiak: herritarren segurtasuna, segurtasun zibila, bide-segurtasuna eta beste arlo batzuetako segurtasuna, besteak beste, joko eta ikuskizunen arlokoa. Horren guztiaren helburua da egungo eta etorkizuneko mehatxuei aurre egitea, herritarren ongizatearen, segurtasunaren eta bizitzaren gainean zuzeneko eragina daukaten horiei, hain zuzen (hondamendi naturalak eta giza jarduerak sortutakoak ere barne).

Segurtasun publikoaren sistemaren printzipioak, besteak beste, hauek dira: arrisku eta mehatxuak prebenitzea; herritarrek dituzten beharrezkoen ezaguera oinarri hartuta, herritarrek babestea; zerbitzu publikoa beharrezkoen haietara egokitzea; arazoak hauteman eta identifikatzea; erantzuna prestatzea eta emaitzak ebaluatzea. Horren guztiaren ondorioz erresilientzia indartzen da, hau da, sistema batek eta haren osagaiek daukaten gaitasuna hondamendi, krisi edo beste gertakari baten ondorioak aurreikusteko, arintzeko, egokitzeko eta horietatik modu egoki eta eraginkor batean errekuiperatzeko. Erresilientzia gaitasuna erakundeetan garatu behar da gizarte-maila eta -sektore guztietan.

Horiek horrela, sistemen ikuspegia hartzea eta konponbide multidimentsionalak identifikatzea erresilientzia garatzeko funtsezko elementuak dira. Planak erresilientzia printzipio estrategiko gisa ezarri du, erakundeak eta herritarrek aurkako edozein gertakariren aurrean prest egon daitezen. Ikuspegi horren ondorioz, Segurtasun Planaren bilakaera eta historia hurbila etengabeko hobekuntza-prozesu bat izan da, 2014an ezarritako helburuetako asko bete direlako. Hain zuzen, urtarilaren 19an, Legebiltzarrean Segurtasun Saileko ildo orokorreari buruz egindako agerraldian, konpromiso hauek hartu ziren:

- 2019an Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra (ESPPO) eguneratzea.
- ESPPOren jarraipena eta tarteko ebaluazioa egitea (2014ko uztaila-2016ko abendua)- *Dagoeneko egin da.*
- 2017an, 2018an eta 2019an ESPPOren jarraipena eta urteko ebaluazioak egitea – *2017 eta 2018koak dagoeneko egin dira.*



- Segurtasun Publikoari buruzko inkesta bat (bi urtean behin) prestatzea, 2017an eta 2019an egiteko – 2017koa dagoeneko egin da.
- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020-2024 egiteko oinarriak garatzea.

Bestalde, segurtasun sistema integrala funtsezkoa da Planeko segurtasun helburuak lortzeko eta Sail guztiak eta horrekin lotutako ente guztiak bateratzeko. Halaber, segurtasun sistema integralak hiru zutabe estrategiko hauetan oinarritutako segurtasun-politika sorrarazten du:

1. Herritarrenganako hurbiltasun handiagoa sustatzea, sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratu behar baita.
2. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu efikazago eta eraginkorrago batez erabiltzea.
3. Gizarte-, erakunde- eta polizia-eragile guztien artean lankidetzaren handiagoa.

Hortaz, zerrendatutako hiru zutabe horiek Planean adierazitako ardatz eta ildo estrategikoen oinarrian daude eta hurrengo taulan ikusten dira:

| Ardatzak | Ildo estrategikoak |
|--|---|
| 1. ardatza: Herritarrentzako zerbitzua | 1.1 Ertzaintza gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengandik eta eraginkortasunagatik 1.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta intelijentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 1.3: Herritarrei ematen zaien arreta eta polizia-establezimenduen segurtasun-baldintzak hobetzea 1.4: Ikuskizun eta jolas-jardueretako lokalen segurtasuna hobetzea 1.5: Kiroleko indarkeria, arrazakeria-adierazpenak, xenofobia eta, oro har, intolerantzia-jokabideak desagerraraztea. 1.6: Lankidetzaren eta koordinazioaren kanpo-agentekin. 1.7 : Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa 1.8 : Azpiegitura kritikoen eta funtsezko zerbitzuen babesa bermatzea 1.9 : Administrazioa elektronikoa |
| 2. ardatza: Planifikazioa | 2.1 Ertzaintza gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengandik eta eraginkortasunagatik 2.2 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta intelijentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 2.3 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta besteekiko lankidetzaren txertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko. 2.4: Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 2.5: Babes Zibil eta Larrialdien arloko plangintza eguneratzea 2.6: Euskadiko Joko Sistemaren ikuspegi integrala 2.7: Datuak eta informazioa jasotzea eta trukitzea 2.8: Euskadiko bide-segurtasuneko plan estrategikoa 2.9: Ertzaintzaren baliabide materialak modernizatzea 2.10 Herritarren autobabesa eta alerta-sistema. |
| 3. ardatza: Koordinazioa | 3.1 Prebentzio aktiboan oinarritutako eta intelijentzia eta ikerketa kriminal batean bermatutako zerbitzua eskaintzea 3.2 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta besteekiko lankidetzaren txertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko. 3.3: Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa 3.4: Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren Zerbitzuen eta sistema ahalbidetzen duten erreminten koordinazioa hobetzea 3.5: Euskal Polizia (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) Koordinatzeko Sistema bat ezartzea 3.6: Osagarritasuna beste administrazio batzuekin |




| | |
|--|---|
| <p>4. ardatza: Prestakuntza</p> | <p>3.7: Ekinbide-Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar-Ekimenen Bulegoa antolatzea eta kudeatzea.</p> <p>3.8: Segurtasun Publikoaren Estatistika organo espezifiko kudeatzea</p> <p>3.9 Erakunde desberdinei dagozkien gertakari konplexuetan adituak diren taldeek jarduteko eta esku-hartzeko prozedurak homogeneizatzea.</p> <p>4.1: Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa</p> <p>4.2: Larrialdietako eta Meteorologiako arloan prestakuntza herritarrei eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako Zerbitzuei.</p> <p>4.3: Jokoaren eta ikuskizunen arloan barne- eta kanpo-prestakuntza</p> <p>4.4: Hezkuntza eta prestakuntza</p> |
| <p>5. ardatza: Komunikazioa</p> | <p>5.1 Ertzaintza gizarte-ezagumendu maila handia lortzea hurbiltasunarengandik eta eraginkortasunagatik</p> <p>5.2 Ertzaintzaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta besteekiko lankidetzatza txertatzea, haren erantzuna premia berrietara egokitzeko.</p> <p>5.3: Ertzaintza osatzen duten pertsonen konpromisoa eta barne-kohesioa</p> <p>5.4: Herritarrekin komunikatzeko sistemak eta prozedurak eguneratzea</p> <p>5.5: Salaketak eta baimenak izapidetzea</p> <p>5.6: Herritarrentzako informazioa</p> |

ILUSTRAZIOA: EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRAREN ARDATZ ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

Amaitzeko, segurtasuna pertsonen ongizaterako funtsezko faktore bat da; izan ere, ELGaren arabera (Ekonomiako Lankidetzatza eta Garapenerako Antolakundea), bizi-kalitaterako eta bizi-baldintza materialetarako funtsezkoak diren 11 adierazletako bat da faktore hori, osasunarekin, hezkuntzarekin edo lanarekin batera, besteak beste.

Ikuspegi horretatik eta, segurtasunaren adierazlean zehazki, EAEk emaitza bikainak lortzen ditu, 10en gaineko 10 punturekin eta Europar erreferentziazko eskualdea da, Norvegiak, Alemaniak, Erresuma Batuak edo Espainiako Estatuak baino puntu gehiago ditu eta.



Oharra: OCDEren ongizate-indizearen barruko segurtasunaren adierazlea lortzeko, burututako homizidioen tasa (100.000 biztanleko) hartzen da kontuan.

Fuente:

<https://www.oecdregionalwellbeing.org/assets/downloads/Regional-Well-Being-User-Guide.pdf>



EKINTZA AIPAGARRIAK

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra egin zenetik lau urte igaro direnez, eta hasita dagoen XI. Legegintzaldian segurtasun arloko helburu estrategiko gehiago ezartzen dituen Gobernu Programa bat aurkeztu denez, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorren 2018. urteko jarraipena eta ebaluazioa egin dira, eta horietan urtean zehar egindako ekintzak eta betetako helburuak jaso dira. Segurtasun Saila osatzen duten Zuzendaritzek aldi horretan zehar lan egin dute Plan honetan jasotako zutabe estrategikoei begira: Planaren garapena eta ekintzak bost ardatzen arabera azaltzen dira. Ardatzak eta zutabe estrategikoak hauek dira:

Zutabe estrategikoak

1. zutabea

Herritarrenganako hurbiltasun handiagoa sustatzea, sistema osoa herritarren ardatzaren inguruan egituratu behar baita.

2. zutabea:

Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak modu efikazago eta eraginkorrago batez erabiltzea.

3. zutabea:

Gizarte-, erakunde- eta polizia-eragile quztien arteko lankidetzak handiaqoa.

Ardatzak

Herritarrentzako zerbitzua.

Planifikazioa.

Koordinazioa.

Prestakuntza.

Komunikazioa.

Zuzendaritzetako lan-dinamika bost ardatz horien inguruan egituratu da. Jarraian azalduta dator egindako lana.



HERRITARRENTZAKO ZERBITZUA



Ardatz honen barruan, Ertzaintzaren Zuzendaritzak hainbat ekintza ezarri zituen herritarrengana arlo guztietan hurbiltzeko helburuarekin. Horiek horrela, landa ingurunetan arreta-zerbitzuak indartu ziren eta 2017an Landa Inguruneari Arreta emateko plana ezarri ondoren, 2018an segurtasun-sentsazioaren inguruko ebaluazio onak jaso dira, Ertzaintza eremu horietan presente egon delako.

Ertzain-etxeetan artatutako pertsonen kopurua handitu da eta Ertzaintzak ikasgeletan presentzia eraginkor bat izateko lan egiten jarraitu du, hitzaldien bidez, esaterako, "Prebentzioa Komunikazioaren bitartez landuz" hitzaldiaren bidez eta horietan lantzen diren edukiei dagokienean, bertaraturakoen gogobetetze-mailaren adierazlea hobetu da.

Herritarrengana hurbiltzeko prozesu horren barruan, polizia-zentroetako ateak ireki egin dira eta 23 bisita antolatu eta ate irekiko jardunaldi egin dira.

Horrez gain, tratu- eta aukera-berdintasuna zein aniztasunarekiko eta desberdinarekiko errespetua indartzeko neurriak mantendu eta sendotu dira, eta horretarako hizkera ez-sexista eta berdintasunezkoa erabiltzeko gidaren 5000 ale egin eta banatu dira. Ildo beretik, 2018an lan handia egin zen 2019an Bortxa aplikazioa arrakastaz atera ahal izateko, Bortxa telefonoaren osagarri gisa, indarkeriaren biktimen babesa bermatuko duten segurtasun-zerbitzuak eta –neurriak handitzeko eta hobetzeko.

Horrez gain, azpiegitura kritikoen eta funtsezko zerbitzuen babesa bermatzeko lan egiten ari da; gobernantza-eredua eta sistematika diseinatuta eta aplikazio fasean daude eta, Euskadiko Azpiegitura Kalteberen inguruko Sailarteko Lan-taldearen bidez, hiru sektoreekin lankidetzara aktiboan dabiltza.

Azpiegitura kritikoak babesteko esparru horrekin lotuta, uztailen Basque Cyber Security Center (BDSC) inauguratu zen. Horren barruan Eusko Jaurlaritzaren lau sail daude (Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak, Segurtasuna, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua eta Hezkuntza) eta Ertzaintza ere hor egoten da beti zentroan antzematen diren delituak bideratzeko eta ustezko egileak identifikatu ahal izateko.

Gainera, BDSCek lehentasunezko helburu bat erdietsi du, hau da, FIRSTi lotzea lortu du, Zibersegurtasuneko Gertakariei Erantzuteko Zentroen Munduko fororik handieneko eskubide osoko kide gisa, eta Basque Cyber Security Day lehen aldiz antolatu du eta ekitaldi horri esker, Euskadi zibersegurtasunaren eta industria 4.0ren arloan Europako erreferente bihurtu da. Ekitaldi horretan Ertzaintzak eta enpresaren zein erakundeen munduko hainbat adituk parte hartu zuten.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak herritarrengana 112ren bitartez hurbiltzeko arrakasta berretsi du, haren app-aren deskarga kopurua 13.600etik gorakoa izan da, 822.000 dei baino gehiagori erantzun die eta 220.000 gertakari baino gehiago kudeatu ditu eta gainera, sare sozialetan daukan presentzia handitu du.

2018an egindako beste ekintza batzuk PLEAN Teknikari gaitu akreditatuentzako prestakuntza-ikastaroak izan dira. Iaz baino teknikari akreditatu gehiago eta autobabes planen erregistro gehiago egon dira.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2018an kiroleko indarkeriari, arrazismoari, xenofobiari eta intolerantziari aurre egiteko, eragileen sentsibilizazioarekin lotutako zereginetan lanean eta hobetzen jarraitu du. Hori dela eta, Kiroleko Zuzendaritzarekin bilerak egin dira, Arkautin kiroleko indarkeriaren aurkako jardunaldi bat antolatu da eta kiroleko indarkeriaren aurkako Euskadiko Batzordea koordinatu da. Halaber, indarkeriako jarrerak, jarrera intoleranteak, eta abar, izateagatik, pertsona edo erakunde arduradunei zehapenak jartzeko protokoloak mantendu dira.



Trafiko Zuzendaritzak tokiko indar eta agintariekiko koordinazioa handitu du eta erraztu du 6 udalek zehatzeko eskumena beren gain hartzea.

Gainera, Euskadiko udalekin lankidetzaren arloan, Gorliz, Urkabustaiz eta Lezo Udaletako Bide Segurtasuneko Planak aurkeztu dira eta Ibarangeluko, Kanpezuko eta Urretxuko Mugikortasun Segururako Planak.

Europa Barneko Errepideen Sareko trafikoari buruzko informazioa trukatzeko ekitaldietan eta erabakietan laguntzeko eta parte hartzeko ahalegina egiten jarraitu du eta Sare horretako foro eta ekintzetan modu aktiboan parte hartu du.

PLANIFIKAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritza bere jarduketak hobeto planifikatzeko ekintzak egiten ari da. Ahalegin horren adibide gisa, Ertzaintza erreakzionatzeko gaitasuna eta erantzuteko denborak lantzen ari da eta 2018an erantzuteko batez besteko denbora 06m eta 03s izan dira.

Hobetzeko lan horren barruan, teknologia berriak sartzen ari dira eta horri esker, zaintza-lan efizienteagoak eta eraginkorragoak egin ahal dira, eta horren adibidea da droneak funtzio polizialean aplikatzen ari direla. 2017ko abenduan urrutiko kontrolaren bidez pilotatutako aireontzien erabilera arautzeko esparru berria onartu zen eta hori, ekipo horiek erabiltzeari begira, beste trantsizio- eta egokitze-puntu bat izan zen. 2018an Ertzaintzak dagoeneko droneak erabili ditu hainbat zaintza- eta kontrol-dispositibotan, esaterako ekitaldi jendetsu hauetan: BBK Live Festival, Errugbiko Champions Cup eta Challenge Cupeko Europako finaletan eta MTV EMA (European Music Awards) sarien ekitaldian.

Halaber, informazio-egiturak egokitu dira eta inteligentziako eredu integralarekin lotutako lanak hobetu dira, prebentzio aktiboan oinarrituta dagoen inteligentzian eta ikerketa kriminal eraginkorrean bermatutako zerbitzu bat eskaintzeko. Jasotako ebidentziak dituzten Begi Ikuskapenen kopurua handitu da.

Ertzaintza osatzen dute pertsonen arteko barruko kohesioa eta konpromisoa indartzeari dagokionean, pertsona horiek hobekuntza-ekimenetan parte har dezatela sustatzen ari da, Ertzaintzako langileek 309 iradokizun proposatu baitituzte; eta berdintasun arloan eta lan- eta familia-bizitza bateratzeko mekanismoak hobetzeko lan egiten jarraitu da, Ertzaintzan dauden emakumeen portzentajea zein lanaldi murriztua daukaten langileen portzentajea handitu baitira.

Langileria berritzeko lan egiten jarraitzen da; izan ere, 263 ertzain sartu dira praktketan (194 gizon eta 69 emakume – XXVI. promozioa), XXVII. promozioiko 379 hautagai prestakuntza jasotzen hasi dira eta oinarritzko eskalako 500 agente lanpostutarako deialdia egin da.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza alderantzizko 112n (112 reverse) oinarritutako abisuen prozeduran lan egiten jarraitzen du, arrisku zehatz baten mehatxupean dauden herritarrei zuzenean alertatu ahal izateko; "nahieran" sistema batean ere lan egiten dabilta, herritarrek, arrisku edo eremu zehatz batzuk hautatuta, horiei buruzko abisuak jasotzeko aukera izan dezaten.



Gainera, Euskadiko herritarren autobabesaren kultura sustatzen jarraitu du arrisku natural edo teknologikoei buruzko informazioaren bidez (161 egun abisu, alerta eta alarmekin; 302.251 mezu elektronikoa meteorologia kaltegarriagatik edo urtegiak husteagatik; 37.412 SMS bidalita meteorologia kaltegarriagatik edo urtegiak husteagatik).

Halaber, presetako bi plan onartu ditu (Triano (Ortuella) eta Aixola (Zaldibar eta Elgeta)).



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2018an 6 bilera egin ditu eta bi jardunalditan parte hartu du, Joko Arduratsuaren eskuliburuak ezagutzera emateko.

Joko arduratsuari buruzko informazio-mezuak barruan dituzten publizitate-kanpainak sustatzen jarraitu du. Gainera, ausazko jokorik gabeko eguna koordinatu zuen (urriaren 27tik 29ra).

Horrez gain, joko sistemak ikuskatzeko eta homologatzeko lanekin jarraitu du, joko-esparruetan egindako ikuskapenen kopurua 2017koa baino handiagoa izan da (3.700) eta joko-makinen homologazioen kopurua ere handitu da (168).



Trafiko Zuzendaritzak 2018an bide segurtasunari buruzko 20 txosten egin ditu eta Euskadiko Bide Segurtasunaren arloko Plan Estrategikoan ezarritako operazioa ezartzen eta optimizatzen jarraitu du. Horren ildotik, Neguko Bidezaintza Plana 12 aldiz aktibatu zuen.

KOORDINAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritzak ezarritako koordinazio-helburuei begira lan egiten jarraitu du. Helburu horiek dira, besteak beste, nazioarteko polizia-organismoetan parte hartuz eta lankidetzan arituz, Ertzaintza nazioarteko polizia-foroetan integratzea; lankidetzarako alde biko harremanak sustatzea, eta beste erakunde batzuekin hartu-emanetan ibiltzea eta horren adibideak: Ertzaintza Europako informazio poliziala trukatzeko SIENA (Secure Information Exchange Network Application) sisteman sartzea; LETSCROWD proiektuarekiko interakzioak.

Lan ildo horren emaitza izan da herri gehiagorekin jarri garela harremanetan, 48rekin, hain zuzen, eta enbaxadetako lotura-ofizialekin eta agregatuekin bilerak egitea sustatu dela. Gainera, informazio trukeak eta datuak beste polizia batzuekin kontsolidatzeko apustua egin da eta horren adibide dira Tetra 61 hitzarmen eta DATAPOL hitzarmen bat indarrean.

Horrez gain, nazioarteko ekitaldi jendetsuak eta hedabideetan eragin handia izan dutenak egin direnez, hainbat erakunde publiko eta pribatuk koordinatu behar izan dira eta segurtasun planak garatu behar izan dituzte, plan espezifikoak batzuetan, ezarritako operatibo desberdinen planifikazioari erantzuteko Ertzaintzaren zein udaltzaingoaren efektibo asko erabiltzeko eskatzen zutenak.

Horrez gain, Ertzaintzak Udalekin, Udaltzaingoekin eta hiru Foru Aldundiekin dituen harremanak sistematizatzeko ahaleginak egiten jarraitu du. Era berean, lurraldeko Segurtasun Publikoaren Batzordearen esparruaren barruan, fiskaltzarekiko eta epailetzarekiko koordinazioa sustatu du.

Koordinazio-esparru horren emaitza da Ertzaintzaren Burutzak eta Fiskal Nagusiak adostu dutela aldi-aldi gorrorto- eta diskriminazio-delituertarako fiskaltza berezietan datu zehatzak bidaltzea eta helarazitako atestatuei



buruz hartzen diren erabaki judizialak ezagutzeko aukera ematea, katalogatzeko irizpideak bateratzeko helburuarekin eta, azken finean, gaiaren inguruan sortzen den dokumentazioa partekatze helburuarekin.

Segurtasun Sailaren eta EHUren arteko lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, Ertzaintzak Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lan egin du datuak biltzen eta egituratzen, Euskadiko gorroto-gertakari buruzko txosten propio bat izateko.

Azkenik, hobekuntza-ekipoak mantendu dira eta iradokizunak kudeatzeko prozesuaren berrikusketara sistematikoa egin da eta horrek egindako iradokizunen kopurua nabarmen handitzea eragin du.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak tokiko agintariekin lan egiten jarraitu du, udal hauetako larrialdi planak berrikusten: Barakaldo, Galdakao, Santurtzi, Arrasate, Ermua, Ondarroa, Azkoitia, Pasaia, Oiartzun eta Urretxu.

Horrez gain, gure lurraldean gero eta garrantzi handiagoak eta konplexuagoak diren ekitaldi berezietan parte hartzen eta horietan simulazioak koordinatzen jarraitu da: 2018ko errugbiko finalak, Vitoria-Gasteizko Final Fourren planifikazioa eta UEFA EURO 2020.

Kolapsatutako egituretan eta horren antzeko ezbeharretan erreskateak egiteko – USAR- diziplina anitzeko ekipoak estandarizatzen jarraitzen da baita, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren barruan, NEBK egoeretan esku hartzeko diziplina anitzeko ekipoak estandarizatzen ere. Jarduera konplexuetan parte hartzen duten administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako protokoloak ezartzen jarraitzen da; izan ere 9 hitzarmen sinatu dira, hauekin: Gurutze Gorria, DYA, Laguntza Txakurren Taldea, Suhiltzaileak, Euskadiko Babes Zibileko Batzordea, Baso-suteei Aurre egiteko Batzordea (CLIF), 112 Zentroen Foro Teknikoa, Boluntarioen Aholkularitza Batzordea, Taktika operatiboak eta SASEMAR..



Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak Euskal Polizia-zerbitzuak (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) koordinatzeko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko mekanismoak ezar daitezela eta bultzatzea sustatzen jarraitu du. Lankidetzaren hori gauzatzen da diziplina anitzeko hainbat lan-talderen bidez eta Segurtasun Sailaren eta Udalen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako hitzarmenen eta protokoloen bidez.

2018an lan-talde hauek elkartu dira lan egiteko: Hautaketako eta Prestakuntzako lan-taldea eta lan horren emaitza izan da Udaltzaingoen Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian txanda librean sartzeko bigarren hautaketa-prozesu bateratua, 26 udalerritako 232 lanpostutarako; Esparru-araua lan-taldea; Ekipamenduen lan-taldea, Polizia-jarduketarako Prozeduren lan-taldea; Berdintasunaren lan-taldea eta orain dela gutxi osatu den Informatika eta Telekomunikazioen lan-taldea.

Hitzarmen eta protokoloen buruz aipatu behar da 37 hitzarmen eta protokolo sinatu direla gai hauekin lotuta: lan-poltsa, Tetra eta drogak, besteak beste. Aurreko urteetan sinatutakoek ere indarrean jarraitzen dute. Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroaren (EPDPZ) Kontseilu Aholku-emailea ere elkartu zen eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 2 auditoretzatzen parte hartu zuen.

Gainera, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen zaintza- eta kontrol-egutegiaren aurkezpena Trafiko Zuzendaritzarekin koordinatu da, bide-segurtasunarekin lotutako prebentzio-kanpainak sustatu dira eta Udaltzaingoei harremana indartu da, Udaltzaingoko Koordinatzeko Batzordea elkartu baita Ertzaintzak eta Udaltzaingoen lankidetzaren egindako jarduketaren balantzea egiteko. Era berean, aurreko urteetan bezala, Koordinazio Batzordeen bilerak egin dira lurralde-mugape polizial hauetan: Vitoria- Gasteiz (6), Azkoitia (2),



Oria, Sestao, Laudio, Laguardia, Galdakao, Muskiz, Ondarroa, Gernika, Bilbao (2), Getxo, Donostia, Durango, Balmaseda, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Irun, Zarautz, Zumarraga.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak bere helburuak betetzeko konpromisoari eutsi dio, operazioko eta segurtasuneko beste kidego batzuekin koordinatuta egindako ekintzen bidez. Horren ildotik, Eudelekin bilerak egiten jarraitu du, ikuskizun eta jolas jardueretarako lokalei buruzko gai komunenguruz hitz egiteko.

Era berean, joko arduratsuen inguruan ikertzeko eta hausnartzeko, diziplina anitzeko lan-taldeekin hainbat bilera antolatu dira, ikuskizunen arloko organizazioekin eta joko arloko enpresa eta elkarteekin.

PRESTAKUNTZA



2018an zehar, PLEAk katalogoan eskaintzen zituen ikastaroetan 13.027 matrikulazio egon ziren (11.352 gizon eta 1.675 emakume) eta horietatik 8.626 Ertzaintzako kideenak (7.651 gizon eta 975 emakume) izan ziren; 369 XXVII. promozioako sarrera-ikastarorako (293 gizon eta 76 emakume), 317 agente lehena eta ofizialorde kategorietara igotzeko ikastaroetarako, eta gainerakoak eguneratze eta hobetze ikastaroetarako, informatika, euskara eta ingeles ikastaroetarako, etab.

Aldi horretan ere, 500 lanpostuko deialdia (gehiagotara zabal daitekeena) argitaratu da, XXVII. promoziorako.

Euskadiko Udaltzain ikastaroetan Akademiak 2.661 matrikulazio izan ditu (2.218 gizon eta 443 emakume), eta horietatik 159 sartzeko ikastaroetarako izan dira (135 gizon eta 24 emakume), 29 agente lehena eta ofizialorde kategorietara igotzeko ikastaroetarako, eta 316 Udaltzaingoetarako behin-behineko agenteen lan-poltsa bateratuan sartu diren pertsonak izan dira.

Aipatu behar da Euskadiko Udaltzaingoetan sartzeko bigarren deialdi bateratua argitaratu dela eta horretan 26 udalerritarako 232 lanpostu eskaini direla.



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Estatu eta Europar mailako proiektutan parte hartzen jarraitu du, larrialdien arloan eta meteorologiaren arloan ikerketarako eta prestakuntzarako foro teknikoak garatzeko helburuarekin.



Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2018an Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateko kideei prestakuntza ematen jarraitu du, gai hauei buruz: makinak eta joko-sistemak, autobabesa, material piroteknikoa, informatika, etab. Halaber, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako langileei zehar lerroei buruzko prestakuntza ematea sustatu da.

Horrez gain, urriaren 16ko 147/2018 Dekretuaren bidez Jokoaren Euskal Behatokia sortu zen (2018/10/23ko EHAAn argitaratua), Euskadiko Jokoa Arautzeko Agintaritzari jokoaren ikuspegi orokorra emateko helburuarekin, agintaritzak horrek bere politika publikoak ezar ditzan.



Joko-sektorea osatzen duten enpresetan Gizarte-erantzukizun Korporatiboa sustatzeko asmoz, sektore horretako 11 erakunderekin gizarte-erantzukizun hori sustatzeko ekintzak egin dira.



Trafiko Zuzendaritzak, Euskadiko Bide-Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoan (2015-2020) jasotako orientazio estrategikoei begira, heziketaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren arloan lan egiten jarraitzen du. Horren helburua da mugikortasun segururako hezkuntza sustatzea eta ematea, baita prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez biderako jokabide eta ohitura seguru eta arduratsuak bultzatzea eta sustatzea. “Te puede pasar/Gerta dakizuke” edo “Antzerki Foruma” ekimenak egiten jarraitu da eta Euskadiko ikastetxeetako gazteei (etorkizuneko gidariak) zuzendutako “Don’t be dummy/Para ti no hay repuesto(s)/Zuk ez duzu ordezkorik” izeneko prebentzio-estrategia sendotu da. Horrez gain, Trafiko Zuzendaritzak mugikortasun segururako hezkuntzaren balioak sustatzeko materialak prestatzen jarraitzen du, arautu gabeko hezkuntza-inguruneetan erabiltzeko, adibidez, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei zuzendutako 74.000 eskola-agenda. Horrez gain, harrapatzeak prebenitzeko programan eta komunikazio-kanpainak sustatu dira, talde kalteberei zuzendutakoak, adibidez, “Pausoz pauso/Paso a paso” edo Euskadiko trafikoaren kudeaketa aurreratuari begirako berrikuntzari buruzko jardunaldi profesionalak. Era berean, bide-prestakuntzaren arloko jardueren, kanpainen eta ikastaroen kopurua handitu da (irakasleak, gidari-eskolak, etab.), Prest_Gara programaren barruan dauden “bide-arriskuen prebentzioa gelan” on line ikastaroen kanpainak ere egin direlako.

KOMUNIKAZIOA



Ertzaintzaren Zuzendaritzak, sare sozialen eta interneten bidez, informazio-bide berriak ezarriz irudi korporatiboa indartzeko helburuaren barruan, APP Ertzaintzaren posizionamendua indartu du. Aplikazio hori, larrialdi-egoerentarako 112 telefonoaren erabileraz harantzago, herritarrekin harreman zuzena izateko da.

Halaber, komunikazioaren kudeaketarako, webgunean gero eta bisitari eta erabiltzaile gehiago daudenez, etengabeko hobekuntza lortzeko erremintak erabili dira, eta berrikuntzaren kultura sustatu da (adib.; praktika onen foroak eta ideia berriak ematea bultzatuz...)



Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak herritarrekin komunikatzeko sistemak eta prozedurak eguneratzen jarraitzen du. Horretarako, Euskalmeten irismen publikoa handitzea sustatu du, app-aren deskarga kopurua handitzea lortu du eta hedabideetan egindako esku-hartzeen kopurua ere bai.

Sare sozialetako jarduera ere handitu du eta Euskalmeteko zein 112 SOS Deiakeko webguneetan bisitarien kopurua handitzea lortu du.



Trafiko Zuzendaritzak Euskadiko bide-sareko trafikoarekin lotutako arreta zuzena, bat-batekoa eta erabakitzailea eman nahian, herritarrekiko komunikazioa handitzeko eta optimizatzeke lan egiten jarraitu du, hainbat tresnaren bidez (Trafikoa APPa, web-orria, sare sozialak, 24 orduko arreta telefonikoa, ...) .

Era berean, Euskadiko Trafiko Istripuen Biktimen Erregistroa ezarri da, lurraldeko bideetako segurtasuna bermatzen lagunduko diguten adierazleak izateko eta herritarrentzako informazioa izateko. Horren ondorioz, urriaren 25ean argitaratu zen Euskadiko Trafiko Istripuen Biktimei buruzko Dekretua.



Azkenik, hedabideekin etengabeko harremana mantentzen da, Euskadiko bide-sarean gertatzen denari buruzko informazio zehatza emateko.



ARRISKU ETA MEHATXUAK EUSKADIN

Planak erantzun nahi dien arrisku eta mehatxuak, beren jatorriaren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

- Naturalak: geologia- edo klima-faktoreak dira arrisku edo mehatxuen eragile zuzenak, eta ez giza presentzia edo giza jarduerak.
- Antropikoak: giza jardueraren edo ekintzen ondorio direnak.
- Teknologikoak: arrisku antropikoak dira, garapen teknologikoaren eta teknologien erabilera esanguratsuaren ondorioak.

Atal honen helburua EAEko segurtasunaren gainean eragin berezia izaten duten arrisku eta mehatxuak zeintzuk diren ezartzea da eta beraz, horien aurrean jarduteko ildo estrategiko zehatzak ezarri beharko dira. Horregatik, LABI - Euskadiko Babes Zibileko Planean jasotako arriskuen analisiari zein Euskadiko delinkuentziari analisiari begiratuta, ESPPO 2014-2019 prestatzean, hainbat arrisku eta mehatxu definitu ziren, segurtasunaren gainean daukaten eraginaren arabera (*baliabideen banaketaren azterketa, kontrolari, arretari eta prebentzioari begira*).

ARDATZEN-ARRISKUEN-JARDUERA ILDOEN ARTEKO HARREMANEN TAULA

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra segurtasunaren ikuspegi oso bat aurkeztu nahi du eta horretan, arrisku eta mehatxuen analisisen emaitzetan oinarrituta, hainbat helburu eta jarduera-ildo definitzen dira, definitutako bost ardatz estrategikoen ikuspuntutik.

Hautemandako arrisku eta mehatxuei aurre egiteko, estrategia proaktibo batek arrakastarako aukera handiagoa ematen du. Helburua gizakiak eragindako kaltearen edo kalte estrukturalaren eta ekonomikoaren ondorioak murriztea da, delitu-ekintzei eta ekintza kaltegarri beraiei soilik begiratu ordez, arazoan sustraletara joz. Euskadin segurtasunarekin zerikusia daukaten sailek gatazka baten fase guztien gainean lan egiten dute: prebentzioa, babesa, erantzuna eta bere onera etortzea. Segurtasun-politikek ikuspegi integral bat hartu behar dute, erakunde, profesional eta herritar guztiak barne hartzen dituen eta beste sektore batzuekin, esaterako, hezkuntza sektorearekin, lankidetzan aritzen dena, jokabide deliktiboak gara daitezkeen ekiditeko helburuarekin. Ikuspegi hori zabala, pragmatikoa, malgua eta errealista ere izan behar da, eta une oro errealitatera egokitu behar da. Halaber, herritarrei eragin diezaieketen arrisku eta mehatxuak, hau da, segurtasun arloko arazo bat sor dezaketenak, kontuan hartu behar ditu herritarrei segurtasun mailarik altuenak bermatzen saiatzeko helburuarekin.

Jarraian, mehatxu eta arrisku bakoitzeko (plana egitean detektatutakoak) ekintzak deskribatzen dira, ESPPO artikulatzen duten ardatzen arabera antolatuta:



| | | ARRISKUAK | | | | | | |
|---------------------------------------|--|--|---|--|--|---|--|--|
| | | Terrorismoa | Zibermehatxuak | Delinkuentzia | Larrialdiak eta hondamendiak | Azpiegitura kritikoen eta funtsezko zerbitzuen kalteberatasuna | Indarkeria sexista | Bideko ezbehar-tasa |
| ESP PO- REN AR DAT ZAK | 1. ardatza: Herritarrentzako zerbitzua | <ul style="list-style-type: none"> Inteligentzia egiturak egokitzea, prebentzio aktiboan oinarritutako zerbitzu bat eskaintzeko | <ul style="list-style-type: none"> Informatikarekin, internetekin eta abarrekin lotutako delituei buruz aurkeztutako salaketak ikertzea | <ul style="list-style-type: none"> Herritarren Segurtasunaren arloko legegikoa aplikazioa | <ul style="list-style-type: none"> Herritarrekin erlazionatzeko moduen bilakaera, teknologia berrien bitartez | <ul style="list-style-type: none"> Sistemen jarraipena bermatzeko, sistema erredundanteak ezartzea | <ul style="list-style-type: none"> Emakumeen indarkeriaren arloan prebentzioari eta arretari buruzko protokolo eta prozeduren azterketa, egin litezkeen hobekuntzak aurkitzeko. Tratu txarreatatik arreta jaso duten emakumei buruzko jarraipen-txostenak egitea | <ul style="list-style-type: none"> Herritarrekin erlazionatzeko modu berriak garatzea. Teknologia berriekin/berrietan presentzia handitzea (sare sozialak, 011 telefonoa eta web-orriak) |
| | 2. ardatza: Planifikazioa | <ul style="list-style-type: none"> Antolaketa-egitura osoan zehar, inteligentzia eredu integrala eta integratua ezartzea Mehatxu terroristaren aldizkako ebaluazioa Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoaren jarraipena | <ul style="list-style-type: none"> Informazio-sistemen eta komunikazio-sareen osotasuna, konfidentzialtasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak garatzea Azpiegitura kritikoak babesteko jardueren monitorizazioa | <ul style="list-style-type: none"> Joko eta Ikuskizunen plan estrategikoetan proposatutako hobekuntza-neurriak garatzea Gorrotu-delituei buruzko datuak jasotzeko sistema mantentzea | <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Babes Zibileko Plana eguneratzea Urteko Neguko Bidezaintza Plan Estrategikoa eguneratzea eta jarraipena egitea. | <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Azpiegiturak eta Funtsezko Zerbitzuak Babesteko Planaren garapena. Azpiegitura Kritikoetarako Laguntza Operatiboko Planak egitea | <ul style="list-style-type: none"> Berdintasun politikak bultzatzeko eta Lan- eta familia-bizitza uztartzeko ekintzak gauzatzea Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egindako lanak eta ekipoak mantentzea | <ul style="list-style-type: none"> Informazio-sistemak inplementatzea, datuak jaso eta trukatzeko Bide-Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 garatzea eta Planaren tarteko ebaluazioa 2018-2020 |



| | | | | | | | |
|--|---|---|--|---|---|--|---|
| <p>3. ardatza: Koordinazioa</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Beste polizia-kidego batzuekin informazioa elkartrukatzea • Ertzaintza Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroan (CITCO) integratzea | <ul style="list-style-type: none"> • Ziberdelinkuentziaren aurkako proiektu europarretan parte hartzea • Ertzaintzaren presentzia Basque CyberSecurity Centre-n | <ul style="list-style-type: none"> • Epaileen, Ministerio Fiskalaren eta Ertzaintzaren Koordinaziorako lan-taldeko bilerak • Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde mistoaren bilerak. • “APUD ACTA” agerraldiak eta aurkezpenak egiteko Bulegoa martxan jartzea. • Ertzaintzak EBko Ortzimuga 2020 ikerketa eta berrikuntzarako programetan parte hartzea. • Udalekin lankidetzahitzarmenak ezartzea. • Tetra-ENBOR SAREA lankidetzahitzarmena • Segurtasun arloko lan-taldeak EUDELekin | <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Larrialdiarako eta segurtasunerako gune operatiboen eta zentralaren arteko komunikazioetan etengabeko hobekuntza ezartzea. - ENBOR SAREA¹ komunikazio-eredua | <ul style="list-style-type: none"> • Sailen arteko lan-taldeak, babeserako jarduerak koordinatzeko eta gainbegiratzeko | <ul style="list-style-type: none"> • Genero indarkeriari buruzko erakundeen arteko protokoloak: <ul style="list-style-type: none"> - Udalak - Ertzaintza - Mankomunitateetako ordezkariak - Osakidetzak - ... • Saileko Talde Teknikoaren (STT) aldizkako bilerak. • Ertzaintzaren Berdintasun lan-taldeko bilerak. • Udaltzaingoen Berdintasun lan-taldeko bilerak. | <ul style="list-style-type: none"> • Trafikoaren eta errepideen monitorizaziorako, beste erakunde batzuekiko lankidetzak. • Udaltzaingoen Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan egindako bide-segurtasunari buruzko kanpainak |
|--|---|---|--|---|---|--|---|

¹ Segurtasuneko Komunikazio-sarea



| | | | | | | | |
|---------------------------------|---|--|--|---|---|---|--|
| 4. ardatza: Prestakuntza | <ul style="list-style-type: none"> Fenomeno terroristaren aurrean jarduteko pautak batzeko prestakuntza-jardunaldiak. | <ul style="list-style-type: none"> Ziberjazarpena prebenitzeko hitzaldiak ematea heziketa-zentroetan. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> -Delitu informatikoak. Oinarrizko ikerketa | <ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzarako eta Udaltzaingoetarako prestakuntza-ikastaroak, delinkuentzia arruntari, sektorialari eta goraka doazen delituei buruzkoak. | <ul style="list-style-type: none"> Larrialdiei buruzko prestakuntzako eta ikerketako foro teknikoak garatzea. Udaletarako ikuskizunei eta jolas jardueri buruzko prestakuntza-ikastaroak. Ertzaintzaren ikastaroak larrialdi nagusiak prebenitzeko | <ul style="list-style-type: none"> Funtsezko zerbitzuen aurkako mehatxuen aurrean segurtasun-neuriei buruzko prestakuntza (teknikoak, antolamendukoak, ...). Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Poliziaren eginkizunak eta operatiboak planifikatzea. | <ul style="list-style-type: none"> Genero indarkeriari buruzko informazio-hitzaldiak herritarrei eta profesionalen taldeei. Ertzaintzaren ikastaroak: <ul style="list-style-type: none"> - Prebentzio psikoedukatiboa GI/EI - On-line prestakuntza: Emakumeen aurkako indarkeria (JABETUZ) | <ul style="list-style-type: none"> Unibertsitatetik kanpoko ikasleei eta prestatzaileei mugikortasun segururako hezkuntzari buruzko ikastaroak. Maila guztietako bide-prestakuntza, mugikortasun seguruari begira. Trafikoko Ertzaintzaren ikastaroak |
| 5. ardatza: Komunikazioa | <ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta esperientziak partekatze helburuarekin, arlo horretako profesionalekin jardunaldiak antolatzea | <ul style="list-style-type: none"> Hedabideen bitartez, informatikako delituei buruz informatzea edo/eta ohartaraztea | <ul style="list-style-type: none"> Segurtasun Publikoaren estatistikaren informazioa zabaltzea | <ul style="list-style-type: none"> Euskalmeten irismen publikoa sustatzea (hedabideak). Saila sare sozialetan etengabe presente egotea. Mugikorretarako APP aplikazioak garatzea | <ul style="list-style-type: none"> Enpresek, beren interesagatik edo daukaten arriskuagatik, horrela eskatzen badute, horiekin bilerak egitea | <ul style="list-style-type: none"> Indarkeria hori ager dadin ekiditeko helburuarekin informatzea prebenitzeko, zabaltzeko eta arriskua azaltzeko Bileretara joatea eta Ertzaintzan bultzatzea Sailarteko Talde Teknikoaren dinamika | <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko trafikoari buruzko informazioa jasotzeko APPa garatzea Mugikortasunaren eta bide-segurtasunaren behatokia sustatzea |



JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planaren ebaluazioa helburu estrategikoen lorpenei begira egiten da, helburu bakoitzaren esparru propioen hobekuntzan ekintzek izan duten eraginari begiratuko zaio, eta ez ekintzen burutzapenari dagokion kuantifikatutako jarraipenari.

Plan honek biltzen dituen helburu eta erantzukizun bakoitza betetzen den metodo eta estrategia berezien bidez ebaluatuko da, eta horiek zehaztuko dute planaren aurrerapen-maila zein den.

Hori dela eta, ildo estrategikoetan lortutako emaitzen jarraipena egingo da, helburuen betetze-mailan izan litezkeen desbideratzeak hauteman eta aurreikusteko eta ondorioz, jardueretan egin beharreko hobekuntzak identifikatzeko.

▪ JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK

Jarraian hainbat adierazle aurkeztuko ditugu, eta horien bidez, plana gauzatzean betetze-maila zein den zehaztu ahal izango da.

Azken bi urtean, lortutako datuak aztertze prozeduren ondorioz, hauteman da adierazle batzuek ez zutela jardueren betetze-maila ebaluatzeko behar besteko informaziorik ematen eta horregatik, adierazle batzuen ordez beste batzuk jarri dira, aztertutako aldian lortutako aurrerapenari buruzko behar besteko zehaztasuna emango dutenak.



| Helburuak | Ekintzak | Arduraduna | 2018ko balioa |
|---|--|------------------|--|
